

**LIBURUA**

Izenburua: 'Orkestra lurtarra'. **Egilea:** Harkaitz Cano. **Marrazkiak:** Jokin Mitxelena. **Orrialde kopurua:** 108 orrialde. **Adina:** 10 urtetik gorakoentzat. **Bilduma:** Xaguxar. **Argitaletxea:** Elkar.

Harkaitz Cano

IDAZLEA

«Nota solteren bat aldatu da, baina melodia nagusia ez»

Orkestra berezia batzea lortu du Manuk, oso berezia. Eta orkestra bereziari abentura bereziak gertatzen zaizkio, nola ez. Hainbat astez, MANTANGORRIKO azken orrialdean argitaratutako istorioa liburu batean argitaratu du orain Elkar argitaletxeak. Harkaitz Cano eta Jokin Mitxelena dira orkestra horretako zuzendariak.

MANTANGORRI astez aste askatuz joan zen istorioa liburu batean argitaratu da. Ba al du aldaketarik?

Aldaketa txikiak bakarrik, esaldi solteak kendu edo jarri, baina gutxi-asko MANTANGORRI argitaratutako berbera da liburuan jasotzen den istorioa. Nota solteren bat aldatu da, baina melodia nagusia ez.

Ipuina jarraitu ez zuen irakurlearentzat, zein da istorioaren muina?

Talde lanean elkarrekin dabilzan musikari batzuen buruhaustea erakustea da asmoa: jiran beste musikariekin elkarbizitzeak dakartzan gorabeherak, umorearen eta sormenaren apologia eta ezuste-



koei modu irudimentsuan aurre egitearen abantailak zeintzuk diren... Lagunak egin eta galtzea, herrik gabeko egoa eta halakoak zer diren... txikitatik ikas dezagun.

Manuren orkestra oso berezia da, ezta?

Manuren musika tresna erratza da, hortik atera kontuak... Gainerako taldekideek bertute eta akats xelebreak dituzte: Osokik triangulua jotzen du, baina kardantxiloa trianguluan pausatzen bazaio, utzi egiten dio musika egiteari; Aldika bio-


lin jotzaile trebea da, baina tarteka azkura izaten du besazpietan eta horrek eragotzi egiten dio musika jotzen segitzea...

Nondik hartu zenuen liburua egiteko ideia?

Alemanian orkestra baten eguneroko bizitzari buruzko liburu ilustratu bat topatu nuen... Zer egiten dute serio itxurako musikari horiek agertokian ez daudenean? Hain dotore dabilta beti? Hortik sortu zen dena. Azkenean, betiko nire zaletasunen inguruan nabil: musika, New York... Soilik kasu honetan irakurle gazteago bat izan dudala gogoan, eta musika klasikora hurbilpen xume bat egin nahi izan dudala: pizzicato bat zer den, kontratenore bat zer den...

Gustura al zaude Jokin Mitxelenak irudikatutako orkestrarekin?

Txoratzen. Lehen begiratuko maitasuna izan da harekikoa. Gainera, lehen aldiz estanpatuak erabili ditu arropak eta errezelak marrazteko... Askok lasaitzen omen da irudi geometriko errepikatuak eginda. Nerone ere frogatzen hastekotan naiz.

**LIBURUA****'Nola sentitzen zara?'**

Zoriontsu sentitzen zara? Edo triste, beharbada? Zeure buruz seguru sentitzen zara? Edo erabat lotsatuta? Kezkatuta, akaso? Edo tentelduta? Aspertuta zaude? Edo bakarrik sentitzen zara? Gosetuta? Edo aseta? Nola sentitzen zara? Irudi eta hitz samurren bidez, euren sentimenduak adierazten ikasiko dute gaztetxoek. Testu labur eta ilustrazio koloretsuen laguntzaz, askotariko jarrera eta emozioak islatzen dira liburuan.

Anthony BrowneArgitaletxeak: **Pamiela eta Kalandraka****ALDIZKARIAK****'Karramarro' eta 'Karramarro txiki'**

Meteoritoei, asteroideei, inuiti, *neanderthalei*, windsurfari eta askotariko bitxikeriei buruz ari dira *Karramarro* aldizkariaren udaberriko zenbakian. Esperimentuak, txangoak, bideo jokoak eta musika, zinema eta literaturako nobedadeak ere ez dira falta, noski. Eta gaztetxoek, berri, denbora-pasez beteriko 8 orrialdeko gehigarritxoak dute: *Karramarro txiki*.

Argitaratzailea: **Ika Kultur Alkartea**